

## Euskal herrietan komentuz komentu

# Pasiotarrak

*La Congregación de la Pasión, cuyos religiosos hemos conocido como “pasionistas”, ha dejado en el siglo XX una impronta vigorosa en varios sectores de la sociedad vasca. A ello han contribuido, entre otros factores, su plan de Santuarios (Deusto, Irún, Angosto), su labor de predicación popular, los centros educativos que han mantenido (Euba, Urretxu) y la actividad editorial (Ibaizabal, 1990).*

Gizonezkoen Kongregazio berrietan ez dute denek arrakasta bera izan Euskal Herrian; horien artean benetan aurre hartu duenetako bat pasiotarren Institutu Erlijiosoa izan da. Jatorriz batez ere biziera erlijioso isilerako eta predikurako jaiotako Kongregazio hau azkeneko hamarkadetan Euskal Herrian kultur munduko lanetan ere nabarmendu da.

### **Pasiotarrak (1720)**

San Paolo Gurutzekoak (1694-1775) sortutako Institutu erlijiosoa da pasiotarrena (1720). 1726an apaiztu aurretik erabaki zuen kristau-bide berri bati ekitea: lehenik, bakardadean eta bere gisako bizi-moldean jarri zen bizitzen, eremita moduan alegia, harik eta, Aita Santuak jarraitzaileekin elkartuta bizitzeko baimena eman zionetik (1725), Monte Argentario-n zenbait lagunekin bere bakardade-etxea ireki zuen arte (1728). 1741ean onartu zion Benedikto XIV.ak Elkarteko Erregela, eta Klemente XIV.ak 1769an aitortu zion berorri nortasun juridiko osoa, Kongregazio beregaina bihurtuta.

Lehen-lehen orduan, batez ere kontenplari bezala ageri zaizkigun pasiotar haiek (hain zuzen, “erretiro-etxe” deitu zieten komentuei), laster eta berehala predikari misiolari bihurtu ziren, herriz herri zebiltzala, eta beren espiritualitatea Kristoren Nekaldiari begira lantzen zutela. Izan ere, Erdi

Arotikzetozen Ordenek, gainerako funtsezko kristau jaiarak baztertu gabe, beren espiritu-biziera jakineko debozio edo misterioren baten inguruan biltzeko joera izan zuten.

Hori gertatu zen, adibidez, oinazetako Kristo sofrituarekin, XII-XIII.etan zistertar eta frantziskotarren artean, Jesus Nazaretekoaren bizitzako alde samindu horri bereziki erreparatu ziotelako. Paolo Gurutzekoak, XVIII. mendean debozio-tradizio hori indar-berritu egin zuen, bere jarraitzaileak jaiara hori zabaltzeko zinitza egitera deituz.

Pasiotarren espiritualitatean, Nekaldiarekiko jaiara hau gizadiaren oinaze, ezbehar eta zori gaiztoetan elkartasuna bizitzeko deia da. Gurutzearen teologiatik bizi nahi dute pasiotarrek mundu honetako ibileran bizi izan beharko ditugun eskasia, gaixotasun eta ondoeza, eta datozkigunen ondoan guk geuk gizakiok sortzen ditugun zorigaitzak ere.

Bestalde, “Theologia Crucis” edo “Memoria Passionis” deituek leku bizkorra izan dute XX. mendeko pentsamenduan (gogora Munduko II. Gerrate izugarriaren lezioa, edo Barth, Balthasar, nahiz S. Breton pasiotararren pentsamendua); filosofiarekin galdera kezkatienetatik ere gertu egon daitekeen mezua da espiritualitate pasiotarra.

Beren historiako unerik jasoenean, pasiotarrak 4.137 lagun izatera iritsi ziren (1967), eta geroztik –Instituturik gehienak bezala– bakanduz joan





dira (nire azken albisteen arabera, 2.500 edo dira). Gizonezko klerikoak ez ezik, moja pasiotarrak ere bilduta daude beren berariazko Kongregazioetan. Pasiotarren Familiako santuak ez dira gutxi, eta hauetako batzuek Euskal Herrian onarpen zabalak izan dute, ponte-izenetan.

### **Pasiotarrak Euskal Herrian (1878...)**

Pasiotarrak 1878an heldu ziren Euskal Herrira, Bilbo-Deustuan lehen Etxeajarriz (1880), hain zuzen Probitziako gobernu-egoitza izan dena. Gero, gainerako Etxeak etorri dira, Euskal Herrian bertan eta hemengo erlijiosoekin beste hainbat Herrialdeetan, Europan bezala Ameriketan.

Hegoaldean egon dira Etxe horiek gehienak: *Arabán*, Angostoko Andre Mariaren Santutegian (1885) eta Gasteizen (1969); *Bizkaian*, Euba (1948), esan dugun Deustu, Ermua (1974-1977) eta Berriz (1977-1991); *Gipuzkoan*, Gabiria (1907-1965) Irun (1916) eta Urretxun (1937); *Nafarroan*, Corella (1900), Cintruénigo (1903-1908), Arronitz (1910-1916), Tafalla (1915-2000) eta Zizur Nagusia (2000-2005) herrietan. Azpimarratzekoa da, II. Errepublikaren garaian, Iparraldeko Azkainen ireki zutela egoitza bat (1931-1964), Institutu erlijiosoeri zer etorriko zitzaizen zalantzak zeudenean, gero, berehalako gerratean, errefuxiatuen babes-etxe ere bilakatu zena.

Gogoan hartu behar da, gainera, hemengo Probitziak Euskal Herritik kanpo Penintsulako beste eskualdetan ere etxeak ireki zituela, Gaztelan (Peñafiel, 1882) edo Galizian (Mondoñedo, 1895). Era berean, Amerikarako jauzia ere egin dute euskal pasiotarrak (Txile, Kuba, Mexiko, etab.).

Etxe eta ahalegin guztiok balio eta jite ezberdinak izan dituzte, bakoitzak bere gisara inguruari erantzunak emanaz joateko. Gizonezko Kongregazio modernoan, Euskal Herriko pasio-

tarrek arretaz sustatu eta sortu ere egin dituzte santutegi-elizguneak, iraganeko tradizioari eutsiz Arabako Angoston, eta santuen inguruan Deustuan (San Felizismo martiria) edo Irunen (Sta. Gema, S. Gabriel). Ahalegin horren lekuko dira Gema edo Gorette izena daramaten euskal herritarrak.

Pasiotarrek –gero eta gehiago laikoan laguntzarekin– bi ekimen kultural handi abiarazi dituzte Euskal Herriko: Eubako “Lauaxeta” Ikastetxea, Gabiriakoari segida emanaz Seminario izatetik (1956) ikastegi irekia izatera heldu zena (1977). Antzeko ekimen goiztarra izan da Urretxuko Ikastolarena ere, pausuz pausuz aurrera egin duena, 1966tik hasi eta inguruko ikastolagintzaren gidaritza eramanaz; 1979an gurasoen esku utzitako Ikastola da, eta orain kooperatiba bihurturik dago (1995).

Euba edo Urretxuko ikas-munduaren ondoren, Ibaizabal Argialetxea dago kultur ekimen aberats bezala (1990). Argitalpen-programa oso gizarteratuta darama Ibaizabal-ek, liburu, disko, eta bideoak sortuz, Euskal Herrian bertako lantaldeak sustatu eta euskarara itzulpenak ere eginez, liburudena eta topaleku sozialak eratuz.

Ohartu, bestalde, 19551n Urretxun irekitako Teologia Ikastegia, une batez (1954), pasiotarrek Europan zuten handiena gertatu zela (50en bat ikaslerekin, 1960ko hamarkadan); fraidegai gazteek Filosofia Tafallan ikasi ohi zuten.

Besteak beste, Euskal Herriko pasiotarren artean baditugu berariaz aipatu beharko lirakeen fraideak, baina bitara mugatuko naiz hemen: Aita Patxi Gondra beneragarria (1910-1974), batez ere Bizkaian halako arrastoa utzi zuena, eta Aita Joxe Agustin Orbegozo, euskal idazle eta Kongregazioko Nagusi Jeneral izana (1988-2000).

**Joseba Intxausti**